

# HERNANI 1962

Larrañaga ta Iruretagoiena, apaiz gipuzkoarrak egin duten Giarzte atzerpenak jardunaldi bat merezi du gure aldetik. Gure erri-tako jendetza, giazte-gaiki, giza-aurrerapena ta dirutza kontuak maiz aitatzen ditugu, baiña beti buruz ari gera ezeren atzartekarik egiteke.

Gure ezaguera jakitez eta zeatzasunez egiña ezpada, kontu oietan ezin diteke urratsik aurreratu. Orregatik bi apaiz auen lana, egin dutenaren gain dagola iruditzen zaigu.

Eta gaurko Ernani'ren atzarketa bakarrik, (Ernani 1962, gaur 1964'garrenean zerbait aldatua degu); lan au gero egin ditezkenen ispilluta erakusgarri izan diteke, egiteko aukerak nola burutzea komeni dan jakiteko. Orrela joka bear da, izan ere, gure giza-azua, diru-kontua ta giza-mailla aztertu nai ba-ditugu.

Euskalerriko beste erri askok, ikasi bezalte beste ainbeste egiten. Ta ala gure erriko izaera ta gureko egoera diran-diranean ezagutzeko bidea arkituko genuke. Gutxigoraberrako kontuekin ezin diteke ezer egiti.

Onelako egitekoak alegin aundia eskatzen dute, noski, ta inoiz diru eralgiketa zenbait ere bai. Baiña ontan gastatzen dana, ez da errekeria jaurtikitako dirua izango.

Or dute landa zabala gure Aintamentu ta Diputazioak, lanik ederrenea burutzeko. Gure Lantegi-nausiak, Alkarguntza edo Kooperatiuak, Ekintza-Katoliko'ren antolaketa, jakintza-Elkarteak, Eta abar alkarak ditzeke atzerteta aukerak antolatzeko ta burutzeko.

Oiek guzietan aurrean jartzen diegu ERNANI 1962 ezartzen au. Lan auetan ariko diranak gaurtik aurrera liburu ori irakurri bearra izango dute. Eta giza-antolaketarik egingo gure artean, aurrelari auen orriak begiztatu gabe.

Kanpotik datorkigun arrotz-taldea ta gure euskeraren biziak orriko geranean, zeatz meatz aitakoa ditugu oraindik liburuak aritoko gai ta ondorenak. Bitartean or daukagu guzian ispillu ta maixu.

## EUSKERAN AIDE BERRIAK

«Bide-giroak» dala-ta...

(JOSE MARI ARANALDE'RI ERANTZUNA)

Ba-natorkizu, Aranalde jauna. Berandu xamar. Ikasi bearrekoak bukatu zai egon natzaizu.

Lenbiti esan bear dituz etzenuela ulertu nire esanairean muña, nik nai nuanez beintzat. Gañera, deritzait, aurre-irritzi edo preiuzioen olozo ongi igurtzi zenuela luma. Bestela, nola demondre kritikatuta zenezake irizienmallea kritika-gaia, ots, liburuera bera ezagutu aurretik?

Ez nuen nik baztertzen baserriko ikuntza, or ikusten baituz euskeraren aberastasin joria. «Baserrikeri» itza Muxika'k bere itzaurren dakarren esanaian nekarran nik, Guk erderaz «casherismo» deritzen diegu orain arteko gure literatura askori, gure betiko ximplekerieri. Beti baserria kantatzen, gure argumentuak maiz eta sarri atxurriti eta ikullutik ez baitira ateratzen.

Lelokerien aurka noa, euskal-literaturari inuxentekeriak kendu nai dizkiot. Zaku batean gorde nai nituzke milla bider, entzundako ipui gatzik bakarkak. Oien ordez, betor edozeinen ariña inarrosi lezake eguneko argumentua, bizituz gatozen giro existentzialista oni gezurrik esaten eziona. Guk, zorritzarek, eztingu orrelako kezagarrikeri eman. Itz politikin konformatu gera, gauz berdiñak esaten eta, geienetan, euskal-idazleak alkar-kopiatzen. Ez al da esia, Aranalde? Nik «baserrikeri» itzarenik auzo aditzen nuen, ta ez «literalki» zuk auri-zenuen bezela. Zuk itzari —etimologice— begiritu zenion ta ez sentiduari. Orregatik eman zenizkion nuntai orrenbeste jira-bira!

«Orixe, Lizardi», ta ekartzen dizkidazu. Eztut gutxiesten oien nortasun goren-gorenekoa. Aldez beste, puntaren puntan dauzkat. Bañan jakizu, oiek sortzalle izan zirela, «jenioak» sortzez. Ala ere, aundiagoak izan zitezkean. Oiek bete zuten orduko bizitz-kondaira, aurreko jakintsuak bete zuten bezela. Gaur 1964'an gaude. Aranalde berri batean. Eta aldakuntzari kaso egin bear diegu. Kanpoko literaturak orpoz-orpo jarraitzen du gaurkotasunaren pausajea. Guk zergatik ez? Mugak jarri bear al dizkiogu euskerari? mugak sentimendueri? zergatik gezurtatu konzientzia? Ez ta ez! Barenak gauz bat agintzen badit, zergatik aldirazi aldrebes sentitzen dudanaren kontra? Naiago dut egizale izan, gezurti izan baño len; Ta, mesedez, «euskeria gorbataz dotoretu» ori metafora bat da; ta metaforak toreatzen ibiltzea zozokeri bat duzu. Metaforak senti-du zabala dauka. Emen ere zuk gauza estegi auri zenuen. Gorbata, gañera, apaintzeko elementu bat izanik, edozeñi datorkio jator, gure «bluxa ta abarkak» baño apañago inoiz ere...

Aranalde jauna, ez ditut estranjeriar-bideak zabaltzen euskera ikasteko, mensaje aberastaso bat lortu-asmoz baño. Gauz ontan «erri-zulo» bakarririk izatea galterako zaigu. Urkizu ta Uitz ez ditut ukatzen, bañan gaur sagastian geldituta ez duzu jakingo nungo estetikan ibilli.

«Farsante» bat ez naizela jakin dezazun, eta teoriaren gañetik, ona emen gustatzen zaizkidan lau-bots bat literatura-saio: Peru Leartzako, Ekunari izkutua, Arabar, Elorri, Harri ta Herri... (Emen literaturaz ari natzaizu, ez jakintza-liburuaz). Aukerak badakite urietako zurrunbilloan igertzen; ba-dakite bizimoduaren bi aldeak, onak eta txarrak, larritzen; ba-dakite lirisismoan sakontzen. Ots, examini-gai bat dakarkite irakurleari. Iges egin digute («autoloji») aspergarritik. Eta euskera-bizitasunaren onerako uste dut. Konpreni ezpanduzun, auzo duzu nire esana. Irakurri «Bide-giroak» eta esan ondoren ur berririk ba-dakarren ala ez.

Bukatzeko, oar bat Zenion: «...berria ez baita on, berriz, eta zarra ez txar, zarrez». Au ondo dago «sloga» bezela. Bañan ez beti. Noiz, nun eta nola adberbioeri kaso egin bear zaie. Pentsakera relabismoaren egatan dabil. Eta ibilliko da!

ARRITOKIETA


# GABRIEL ARESTI

## poeta, arro, ero,... ta biraolari?

Konturatu gabe pasatuko zitzaidan lagunak esan ez balidate. Ala irakurri dut Z-A 67-an Gabriel Aresti-ren HARRI eta HERRI liburuaz E-tar J. A. bilbotar jaunak dioena.

Zalparta itzela jaso oi du liburu onek Bilbon; ez nau batere arritzen. Ezta aldeko ta kontrakoak ugari izateak ere. Bai, ordea, bilbotar jaunaren azken izateak: «Laster agertuko dau beste gazte batek poema barri bat, izan onegaz: «Arro eta Ero»... ta biraorik gabe».

Aresti poeta on ala txar delako gorabera, or konpon. Libre gera irizti ta gustoko izateko. Arro ta



ero dalakoa... or konpon ori ere, esan nai duenaren kontura. (Izenper-turik esatekotan). Baiña ta biraoren ori?

Nola ulertu bear dudan ez nago ziur. Lagunen batzuek itzez itz ez arteko esan didate. Etzegoela, du-darik gabe, Aresti biraolaritzat sal-talzea E-tararren asmoan. Ala izan-go al da. Ez dakit. Dana dala, gutxi inporta diot E-tararren asmoak. Aren baimenarekin, gaitz jeneralgao bat-en kontra nator.

Nun-demonio aurkitu dizkio li-buru oni biraorik inork? Nik, itsu egon bear dut inundi ere, ez dut bat bakarrik topatu. Ta bila ibilli naiz. Ez dut inor publikoki ta jende-arean aurrean biraolari salatzeko zerarik aurkitu. Beste amar milla gauza aurkituko nizkioke, bearba-da. Biraorik, ez.

Frasetxo batetegatik ixilllean pasatzen utzi nezakean. Erzait egoki iruiditu, alare. Irakurlea gelditu di-teke Aresti ez dakit zein dalakoan. Ba-dakit nola sentitzen dan uske-riatxo usalenagatik bati herejia, bi-rao ta beste olako ananema jene-roak bizkarretazte. Orduan, erre-zegi esandako frasetxorik txikiñena kontrako deabrua sartzen zai-o bati, infernu osoarekin barrenera-i-oro sartu. Esatera merke aso da kal-tegarri ta erremediatzeko galesti.

Egun zahar batean zaplastako ga-rratza ematen zuten Orixe zanak PERU LEARTZA-koaren dudu min-garrial. «Unamuno, Leartza, ta ola-ko oiek, guk aña dudu ta kezka izan ote dute fede-gauzetan? Ez diegu ohore ori emango. Santuago ta eraso geiago». Eta nik sentiaru nuen Orixe argia ekiboko batean zebillela au idaztean.

Peru Leartza-koak etzitzen ira-kurri ta goiko itz oiek etzieten mi-ñik eman. Ala obe. Ezagutzen dut Leartza-ren zati bat dugunon arte-ko (alegia, gizonik geienok, nire iri-tzian) bat baño geiago, esaera orrek minduta. Txillardegri bera, inor baño geiago. Intziri bat bezala irten zitzaion: «Leartza gizaori beraoldi batean olakorik itzuri balitzaio...» Eta: «Kontuz! Etxatzue epai: santuen Santuaren itzak dira».

Zer ikusi bear duen gure kontua-rekin onek? Gaitz bera dalakoan aipatu dut. Minbera da gure kris-tautasuna. Susmoz betez. Baztar da-nak sorginez betetzen ditu (gaitz zaharra, beraz), nunaitik zelatan as-matzen ditu etsiak. Sendotasuni-kan gabea. Ez gaude erlijio askata-sunerako etsiak, ez. Onak gaude gu-re aldamenen protestante, ateo ta gañuntzekoak, eskubide berdiñekin ametitzeko. Ta utsa benetako here-ja azkar arripatu baizik egiten ez danean.

Eta santua ez dan kulpaa gabea... HARRI eta HERRI liburuari nik ez diot biraorik aurkitu. Gustuako litzaidake, ba, E-tar J. A.-k banan banan seinaltatuko balizkit.

Irañik ez baño maitasuna aurkitu dut nik liburu orretan Jaun-goiko ta Jesukristo-ganako.

Ez asko moduzko maitasun be-raxka, bigunikeriazkoa. Militan-tearen amodioa baño. Giartua, zaintsua. Jainkoaren bila dabilena-ren kantua. «Nun da zeruko atea? —Kanta dezagun bateal! —Apu dezagun kateal! Edo, «Nundik etorria —izanen da— argia? —Ni-re fede— garbia?».

Z-A 67 irakurri izan ez banu etzi-tzidan sekula santa kaskarretik pasatuko liburu onetan inork bi-raoak aurki zitzakeanik.

Baiña ba-dirudi buruan zeuzkala Aresti-k biraolari joko zutenak, in-tuizioaren argiak ekarritak: «Egun batean —munduak akabatuko di-ra,— eta haren (jainkoaren) esku-man —jarriko dira— ezkerrekoak». Eta beste Euskera garbia izenda-tuen dioena: «eta nire arimaren ko-lorearen kontra munduko —zezen eta aket eta ahari guztiak— oldar-tuko badira ere seinaleak izanen dira zeruans».

Eta batez ere gizona maite du Aresti-k: «Gizonaren alde nagola, behin Zorroztako portuan prometi-tu nuen bezala... Hala da, ni egia-ren alde nago, gizona eta egia bat-era doazalako».

Ez dagoela Jainkoa maitatzetik gizona maitatu gabe, San Joanek esandakoa da. Ta Bati kano San Paulo-rekin, mundu onetako gauza agrietatik Jainko izkutua ezagutzera irizti gitezkeala. Ez li-tzake, ba, biurriegia izango Jainkoa maitatzeko biderik aukerakoena gizonaren maitasuna dala esatea.

Onekin guztiarekin ez naiz ino-ren kontra ari. Izenez ez. Izanez baituz espero dut. Ezari ordez, itzalari botatzen diot tiroa. Nik ez baitut inor il ni, orzatz erakusten dituan pizkita izutu baño.

Eta nik ba-dakit, Aresti-k berak



esanda, liburu onen sentidu natu-ralean ez dala biraor sentidurik. Bai-ña etzegoan, noski, emen berriak.


Moralistik eta teologoak esaera bat kritikatuta aurretik esandakoaren berezko sentidua ezagutu bear du-ro. Entzuten diegunean bati, «esto

no lo sabe ni Dios», «Cierito mo-que Dios existe», ta olako makiña bat, etzaiugu biraor entzuten dugu-nik iruditzen.

Ero, azkenik, ikusiko da zeruari errespetoa galdu al zaion. Esate ba-terako, zer irudituko litzaioke E-tar J. A. jaunari Aresti-ren poema ba-tean Jainkoa moskor batekin, ze-zen batekin konparatuko balitz? Biraor? Niri ez. Biraor arriskurik ez duen norbaitek egiaña da konpara-zio ori...

Beste zerbait litzake biraor itzak emen biraor estetikoaa adierazi nai baligu. Ala balitz, poz-ozik geldi-tuko nintzake errekerako ura zigor-katzen jartzen naizela jakitearekin. Dana alperrik izan ez dan itxaro-penean. Orain, bukatu aurretik, ni-re susmo apika fundametu gabe-koa nai nuke azaldu. Bearbada bes-teari bizkarretaren diedan okerra neronek kometatzen dut.

Nire artean sarri egon naiz Ares-ti-ren au eta Txillardegirenak eta beste «alako» daukaguntxo ez ote,



dan herejertzat, biraolaritzat, komu-nistatzat (111) kondanatzan, beste alde batzuetatik gustatzen etzazki-gulako. Errexena sustrai sustraitik jo ta ankaz gora botatzea bada.

Gustatzen etzaiorian ez diegu kritikatzeko eskubiderik motzuko. Eskubide egiegitxo motzu zaizkigu dagoaneko. Ta kritika modu bat sa-rtu dugu. Ederki. Ederki dago-anean.

Jakin nai nuke zenbaitek esango luketen Aresti-k esan duan «beti paratuko baño gizonaren alde», ura. Eta jakin nai ere, zenbaitek berri-tuko lukean Txillardegiren (aust-ak arrotu dizkiguten bi liburu al-tertzeko): «Serbitzari naiz jaiot-zan... Zorritzarek, ez du Jainkoak itzigiten; baina bertatik itzigiten didate bere ordez, edo Arek auen aoz... Miren-ek bear nau; nereak bear naute... Aientzat bizi bear dut»... (Leturia-ren egunkariak tesi au duala esan genezake ta alare ba-dirudi gutxi konturatu dirala). Eta Aresti-ren «Nire aintzen etxea—defendituko dut», poema zoragarria.

Laister agertzeko poema orrek «Arro ta Ero» tituloak adierazi de-zaiugekana baldin bada beintzat, la-gun orkoaren kontrako biraorak obe-to izango dituala, sobrare, pentsa-tzen dut, karidadea baño. Gauden zai.

Esandako guztiak esan arren, ez-tabandia geienetan oi dan bezala, seguru asko; etzago E-tar J. A.-ren eta nire artean alde aundirik. Eta berditsum litzake balego. Dana da-la, uzten badit, nire bostekoa es-keintzen diot etsai ezegunari.

Anarteraño, ta nire irizian, HA-RRI eta HERRI-n etzago biraorik, eta kalte baño on asoko geiago es-pero dut liburu onetarik.

JOSE ANATZEMENDI ARANTZAZUKO

## ORMAZA

Arrain eta barazki umao-egillea

Ikur ezaugarriak: «ORMAZA» - «RAF» - «CHO»

Lantegiak: BERMEON - San Juan de la Arena (Asturias'en) Mundakan eta Mañerun (Naparrun)

- ZER GURA DOZU?
- ORMAZAN ARRRAIN ETA BARAZKI.
- O! GAUZA ONA ZER DAN BEINTZAT BADAKI.

BERMEON: Ukiak: 95 eta 580.